

Emakumeen kirolari
buruzko aldizkari digitala
Revista digital sobre
deporte femenino

11

Azaroa • Noviembre
2021



Arabako Urrezko Emakumeak Alavesas de Oro



“Kontaktu
kirola bada ere,
borroka ez da
kirol bortitza”



araba álava
foru aldundia diputación foral



Nerea Elorzak 12 urte
daramatza borroka
librearekin gozatzen. 1993an
Gasteizen jaioa, antzerkia
uztea erabaki zuen Aranako
klubari esker diziiplina
honetan sartzeko. 2018an
brontzezko domina lortu
zuen Espainiako txapelketa
absolutuan, 55 kiloko
kategorian.

Nolakoak izan ziren zure kirol hastapenak?

Bitxi samarra izan zen. Nik 16 urterekin antzerkia egiten nuen. Ez nuen inoiz kirolik egin. Saskibaloizale amorratua naiz eta talderen batean izena eman nahi nuen; baina nire lagunek Pedrorrekin, klubeko kideetako batekin, egin zuten topo eta entrenamendu batera gonbidatu zituen. Guztiok probatu genuen, izugarri gustatu zitzaidan eta orain arte. Are gehiago, antzerkia utzi egin nuen.

Kirol oso minoritario batean hasi zinen. Zer zenekien kirol horri buruz?

Ez nekien ezer. Lehenengo egunean azaldu zizkidaten lau gauza besterik ez. Eta gero eta gauza gehiago ikasten hasi nintzen gero. Garrantsitsua izan zen, halaber, Maider Unda ospea hartzen hastea eta gure kirola gehiago zabaltzea. Euskadiko eta Espainiako txapelketetan elkartzen ginen. Berandu hasi nintzen; baina urte hauetan guztietan ikasi egiten duzu, eta lehiakorra izan zaitezkeen puntu batera iristen zara.

Zer du kirol honek jendea hainbeste harropatzeko?

Kontaktu kirola bada ere, ez da batere bortitza. Oso entretenigarria da, eta estresa kentzeko ona. Egun txarra baduzu, entrenamendura joan eta irribarre batekin ateratzen zara. Taldearen babesa sentitzen duzu eta familia txiki bat osatzen dugu. Dena da: kirola, jendea eta gustuko izatea.

Zer helburu dituzu orain?

Batez ere, Espainiako txapelketak. Horiek ere asko entrenatzea eskatzen dute. Ez dut haratago pentsatzen, sakrifizio handia eskatzen baitu. Errendimendu handiko zentroetan dagoen jendea ezagutzen dut eta ordu asko ematen dituzte. Erabateko dedikazioa da. Niretzat zaletasuna da, baina inoiz ez dut pentsatu dedikazio hori eskaintzea; izan ere, badut lan bat, baita bizitza pribatua ere, eta baita klub bat ere (eta nire klubarekin gozatu egiten dut).

28 urterekin, momenturik onenean zaude?

Beno, gaztea naiz. Uste dut bakoitzak jartzen dituela bere helburuak, adina gorabehera. Ezagutzen ditut beste borrokalari batzuk 30 urtetik gorakoak (eta baita 40 urtetik gorakoak ere) lehian jarraitzen dutenak. Ona zein txarra izan, bakoitzak helburu batzuk jartzen baditu, haien bila joan behar du. Nire kasuan, gozatu egin nahi dut; eta ez dut nahi lan bat bezalakoa izatea.

Senior kategorian 55 kilotan lehiatzen zara. Nolako da Espainian dagoen maila?

Badago maila. Ez gaude asko, lehiaketa pisuka banatzen delako; eta, tamalez, neskak mutilak baino gutxiago garelako. Baina urtetik urtera desberdina da; jende gaztea igotzen da eta perspektiba pixka bat galdu egiten duzu.

Zergatik zaudete neska gutxi oraindik?

Uste dut funtsezko arazoa dela ez dela ezaguna. Pena da. Zure bidean agertu behar du (nire kasuan hala izan zen) kirol honek harrapa zaitzan, baina ez dago borroka ikusteko aukera handirik. Egia da nire klubetik neskak pasatu direla, baina arazoa da utzi egiten dutela. Ez da mutilentzako kirola; argi gera dadila.





Zergatik animatuko zenuke jendea borroka kirola egitera?

Lehenik eta behin, esango nieke ausartu daitezela etortzera, nire kasuan bezala, Aranalde gizarte-etxera (bertan entrenatzen da nire kluba); edota Mendizorrotzara (bertan dago Luis Crespo). Prest gaude jendea hartzeko; lehen hartu-emanaz izateko aukera izan dezaten eta, ondoren, balora dezaten beren gustuko kirola den edo jarraitu nahi duten. Familia bat gara, eta denak besoak zabalik hartzen ditugu. Jaki berri bat bezalakoa da; ez dakizu gustuko izango duzun probatu arte.

Ikusi al zenuen Maider Undaren borrokaldia Londresko 2012ko joko olinpikoetan?

Bai, ikusi nuen. Berriz eman zutenean ikusi nuen, Andre Maria Zuriaren jaiekin batera izan baitzen. Gozamina izan zen brontzezko domina hori nola lortzen zuen ikustea. Borrokarako erabateko bultzada izan zen, eta ikusgarritasuna izateko aukera. Zalantzarik gabe, haren irudia funtsezkoa izan da borrokari bultzada emateko.

Telekomunikazio-ingeniaria eta kirolaria zara. Zure kasuan, bi gauzak bateragarriak izan daitezke?

Jakina. Ikasketak ez dira inoiz utzi behar. Klubeko neska-mutil gazteenei horixe irakasten diegu. Hau zaletasun bat da, baina

lehenengo ikasketak dira. Telekomunikazioetako ingeniaria naiz, asko gustatzen zitzaidalako eta asko erakartzen ninduelako teknologiaren munduak, komunikatzeko moduaren inguruko jakin-minak. Pozarren nago. Lana daukat, ikasten jarraitu dut eta zibersegurtasuneko master bat ikasi dut osatzeko (barreak). Ondo antolatuz gero, ikasteko eta kirola egiteko denbora dago.

Beste zaletasun batzuez gozatzeko astirik baduzu?

Bai, bai. Pertsona dinamikoa naiz, eta egunean zehar beti izaten ditut orduak gauza asko egiteko. Irakurtzea gustatzen zait, telesailak eta filmak ikusten ditut eta lagunekin ateratzen naiz. Bizimodu normala egiten dut. Edozer gauza egin daiteke antolamendu pixka batekin. ●

Borrokaren jatorriaren historia labur-labur

Gizateriaren kirol zaharrenetako bat da.

Ez dago borrokarako jatorri komunik; herri guztiek izan baitute, garai guztietan, borrokarako moduren bat. Gizateriaren berezko osagai gisa agertzen da, eta herrien arte martzial gisa.

Borroka, atletismoarekin batera, munduko kirol zaharrena da ziurrenik; eta, gainera, lehen joko olinpikoen aitzindariak izan ziren. Borroka Antzinaroko Lehen Joko Olinpikoetan sartu zen K.a. 776. urtean, baina lehenagotik zegoen zibilizazio guztietan.

Borrokari buruzko benetako lehen informazioak sumertarren garaikoak dira. K.a. 2.300. urte inguruan idatzitako Gilgameshen Poemak garai hartako borroka-lehiaketen kontakizuna egiten digu.

Antzinako Greziako borroka leku nagusia zuen elezaharretan eta literaturan. Mitoen arabera, borrokako legeak Atenea jainkosak eman zizkien gizakiei, Teseo heroia bitartez. Beste kondaira batzuetan, borroka Herkulesen asmatu zuela esaten da, Palestra maitalearen omenez. Beraz, entrenamenduen tokiari "palestra" deitu zitzaion; hitzaldi eta eztabaida filosofiko eta intelektualetarako guneak ziren horiek. Palestrako zoruak eta hormak atleta, jainko eta heroi



ospetsuekin (esaterako, Apolo, Herkules edo Herakles, eta Hermesekin) apaintzen ziren. Musika entrenamenduen eta lehiaketen parte izaten zen askotan. Atenasko garai oneneko gimnasio garrantzitsuenak Platonen Akademia eta Aristotelesen Lizeoa ziren. Hortik sortu zen "palé borroka" terminoa; borrokatzeko modua egungo kirolaren antzekoa zen eta bi modalitate zituen: borroka bertikala (aurkaria lurrera botata lortzen zen garaipena) eta borroka

horizontala (hondarretan jarraitzen zuen, borrokalarietako batek alde egin arte).

«Palestrako zoruak eta hormak atleta, jainko eta heroi ospetsuekin (esaterako, Apolo, Herkules edo Herakles, eta Hermesekin) apaintzen ziren.»

Horiek "Agones luctatorios" delakoen barruan zeuden, eta hiru ziren:

Borroka: Borrokaren helburua arerioa heltze eta eusteen bidez lurrera botatzea zen. Lehen uste zena ez bezala, onartzen zen norbere zangoak erabiltzea erasorako, bai eta aurkariarenak erasotzea ere. Beraz, borroka libre olinpikoaren antzekoa da antzinako borroka. Borrokalariek ezin zuten aurkaria jo; eta debekatuta zeuden ostikadak, eskutadak eta ukabilkadak.

Ukabilka borroka: Kirol honetan, aurkaria ukabilekin bakarrik jotzen zuten. Egungo boxeolari dagokio. Hasieran, ukabilak estali gabe borrokatzen zuten; baina aurrerago eskularruak erabiltzen hasi ziren.

Pankrazioa: K.a. 640. urtean agertu zen, eta arte martzial mistoen antzekoa da. Kirol honetan, aurkaria garaitu behar zuten eta aurkaria gorputzeko edozein atalekin jo zezaketen. Edozein luxazio motak eta minezko eusteek ere balio zuten. Borrokaldia errendizioarekin amaitzen zen, baita heriotzarekin ere; denborarekin basakeria handia lortu zen.

Erromatarrek ere egiten zuten borroka prestaketa fisikoa egiten zutenean. Augusto enperadoreak bultzada handia eman zion antzinateko kirol jokoetan.

Egipton ere, hurrekin borrokatzeko 400 teknikaren deskribapenak aurkitu zituzten piramideetan; eta horietako asko oraindik ere borroka olinpiko modernoaren osagai teknikoaren parte dira.

Japoniak ere borroka-tradizio luzea du duela 2.000 urte baino gehiagotik: Japoniako urte-liburuetan aurkitutako lehen borrokaldia K.a. 23. urtekoa da.

Amerikan, borroka librea lehen kolonoek sartu zuten, nahiz eta ikusi zuten borroka

librea dagoeneko ezaguna zela Amerikako herri indigenen artean.

Estilo libreak Estatu Batuetan irauten du, eta aldaketa batzuekin egiten da. Europan, borroka librea hemeretzigarren mendean zabaldu zen. Eta urrutiagoko herrialdeetan (Mongolian, esaterako) ere ezagutu zuten; borrokak tradizio luzea du bertan. Indiak eta Pakistanek borrokalarari garrantzitsu asko eman dituzte.

Aro modernoko lehen Olinpiar Jokoetan, 1896an, pisu guztiei irekitako dibisio bat sartu zuten; proba Carl Schuhmann alemaniarra irabazi zuen (harrigarria bada ere, 1,57 metroko altuera besterik ez zuen).

1912an, Suedian, FILA (Borroka Elkartuen Nazioarteko Federazioa) sortu zuten, kirol hau zuzentzen duen nazioarteko erakundea. Kirol honek protagonismo

«Borrokaren helburua arerioa heltze eta eusteen bidez lurrera botatzea zen.»

«Londresko Jokoetan, 2012an, Maider Unda arabarrak lehen domina olinpikoa lortu zuen Espainiarentzat: brontzea -72 kiloko bere kategorian.»

handia duen herrialdeak (Iran, Turkia edo Mongolia kasu) biltzen ditu; leku horietan borroka kirol nazionala da.

1972az geroztik, borroka hamar pisu-kategoriatan banatzen zen bi estiloetan. Sydneyko 2000. urteko Joko Olinpikoetarako, borroka-programa aldatu egin zuten. Estilo bakoitzean zortzi pisu-kategoria baino ez ziren aurkeztu. Pisuak ere aldatu egin zituzten; eta kategoriarik arinena kendu egin zuten (erdi-euli pisua deritzona, besterik gabe).

Londresko Jokoetan, 2012an, Maider Unda arabarrak lehen domina olinpikoa lortu zuen Espainiarentzat: brontzea -72 kiloko bere kategorian. ●



Non ikas eta goza dezakezu kirol honetaz?

Jar zaitez harremanetan
Arabako Borroka Federazioarekin



**ARABAKO BORROKA
FEDERAZIOA**
FEDERACIÓN ALAVESA
DE LUCHA

KIROLAREN ETXEA
Zerkabarren kalea, 5
01001, Vitoria-Gasteiz (Araba-Álava)
615 793 030

f.a.lucha.alava@gmail.com



dxtfem.com/alava/

EL SITIO QUE TE INFORMA SOBRE
EL DEPORTE FEMENINO EN ARABA

ARABAKO NESKEEN KIROLARI
BURUZKO LEKU

**LAIA
eskola**

Arabako emakumeen jabetzarako eta
berritzarazteko eskola
Escuela para la igualdad y el empoderamiento
de las mujeres de Álava

Kirol Zerbitzua
Servicio de Deporte

araba álava
foru aldundia diputación foral



web.araba.eus/eu/kirola